

ZATOK ELIZA JASOTZEN

1

-Patxi ta Joxepa gatoz
gaur bertso-kantura
-Zerbait argitu nahirik
betiko modura
-Eliz-bizitza dator
gaur nire gustura
-Zuri ta neri, Patxi,
al digu ardura?

2

-Hor zabiltzate hainbat
barruan sartuta
-Baina, ez gabiltz, Patxi
inork behartuta.
-Hortarako, Joxepa,
ni nago zahartuta
-Zahartuta baino gehio
zaude zakartuta.

3

-Zertarako daude hor
apaiz eta lagun?
-Haiek berena, ta guk
geurea dezagun.
-Zuk ere hortik zerbait
jaso ote dezun...
-Ez al dakizu zuk zeinbat
emana daukazun?

4

-Elizan errez dago
nondik irabazi
-zuk ezin harrapatu,
hauxe da desgrazi...
-Diru-kontuen berri
ez dezu ikasi?
-Lapur ona bazera
harrapa zeuk, Patxi!

5

Elizakoa ez da,
ez gure ardura
-oraintxe esnatu da
lo zegon agura!
-Eliza ikusita,
ikus zer itxura!
-Zugatik laister zaigu
erori putzura.

6

-Zuok nahiko zarete
ni gabe igual da
-Patxi, zu ez bazatoz
zurea da falta.
-Gurekin sortuko da
ha zer porrusalda!
-Laister paroa utzi
eta hartu alta!

7

-Josepa, laister gara
santuen pareko
-hori hobe da, ta ez
jentilen antzeko.
-Laister jarriko gara
apaizen ordeko
-Haiek ta gu elizan
bai gera etxeko.

8

-Parrokian ez dago
niretzako lanik,
-Patxi, ez esan, arren,
gaur behar ez danik.
-Ez al da beste inor
gogoia daukanik?
-Patxi, amor emanda,
zu zatoz gaurdanik.

9

-Jendeak ni ikusi
ta zer esango dau?

-Zuri hau entzuteak
lotsas betetzen nau.

-Joxepa, hola al da
eliza-kontu hau?

-Patxi, hola bakarrik
izan al da kristau.

10

-Joxepa, nik ez dakit
zer ta nola egin

-gu ez gabiltz bakarrik,
beti elkarrekin.

-Ez det gaur arte egin
hainbeste ahalegin,

-Jauna lagun degula,
borondatez ekin.

11

-Urteak aurrera ta
zerbait egin behar

-bakarrik ezin da ta
har dezagun elkar.

-Pentsatzeak bakarrik
jartzen nau dardar,

-ez utzi gerorako,
berandu da bihar.

12

-Patxi ta Joxepa
kantuz gabiltz hemen,

-denok biztu beharra
degula esaten.

-Martxan jarri gaitzen
hau entzun baino lehen:

*Requiescat in pace
sekulorum. Amen.*